

Iritzi Generoak

2019-2020



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

5.1. Zer da?

5.2. Nor da egilea?

5.3. Kalitatearen isla

5.4. Egitura

5.5. Motak



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

- **5.1. Zer da?**

- Albistearen osagarri den artikulu bat da.
- Izaera interpretatzailea du.
Eguneko gertakari esanguratsuenen azalpena da.
- Argudio testu bat da.
- Albistearen testuingurua aurkezten du.
Azaldutako gertakariaren aurrekari zein balizko ondorioen inguruan egiten du gogoeta.



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

- **5.2. Nor da egilea?**

- Kazetari bat da egilea normalean. Gainera, gehienetan, ardura bat du erredakzioaren organigraman (sailburua, erredakzio burua...).
- Kazetari honek informazio esparru bat menperatzen du eta gai jakin batzuen inguruan iritzia emateko gaitasuna du.
- Artikulu-iruzkinak sail ezberdinen barnean du bere lekua: Mundua, Euskal Herria, Kirola, Ekonomia, Kultura...



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

- **5.3. Kalitatearen isla**

- Egunkariak artikulu-iruzkinak egiteko erredakzioko kazetariak darabiltza: kazetaren beraren kalitatearen isla.
- Hala, bere kolaboratzaileek ez dute baldintzatzen iritziaren eremuan. Izan ere, sail guztietan iritzia taxuz eskaintzeko moduko kazetariak ditu.
- Artikulu-iruzkinak kazetak bere editorialen, kolaboratzaileen nahiz zutabegileen bitartez eskainitako iritziaren osagarri dira.



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

• 5.4. Egitura

1. Titulazioa:

Adierazkorra da eta jite baloratiboa du.

2. Testua:

- 2.1. GAIAREN PLANTEAMENTU OROKORRA

- 2.2. ANALISIA ATALKA

Gaiaren alde ezberdinak aletuz joan.

- 2.3. EPAIA

Gaiari buruzko iritzi kritikoa.

- 2.4. IRTENBIDEA.

Etorkizunera begira proposatutako irtenbidea.



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

Artikulu-iruzkinaren ordena alda daiteke. Nolanahi ere, askatasun handia badago ere, garrantzitsuak dira oso testuaren hasiera eta bukaera:

gertakaria eta bere ondorioa

- Lehen paragrafoa: irakurlearen arreta bereganatu eta irakurtzera bultzatu. (baieztapen biribil bat, gertakari erabakior bat, sentimenduei zuzendutako dei bat, ateraldi ironiko bat...).
- Azken paragrafoa: esandakoaren laburpen, ondorio edo asmo nagusia (auziaren muina islatzen duen epaia, ondorio logiko bat, iragarpen garrantzitsu bat).



5. GAIA:

Artikulu iruzkina

5.5. Motak

1. Iruzkin politikoa

- **Mundua**
- **Euskal Herria**
- **Tokian-tokikoa**

2. Iruzkin ekonomikoa

3. Kultura iruzkina

4. Telebista iruzkina

5. Burtsa iruzkina

6. Kirol iruzkina

7. Ikuskizunei buruzko iruzkina

